



## **Epe laburrean hasiko dira Leitzarango Otieta tunelaren segurtasuna bermatuko duten lanak**

**.-Segurtasuna bermatzeko neurriak aurreikusten dituen proiektua amaituta dago eta lizitaziora irtengo da aurki**

**.-Lanak lizitaziora 180.000 eurotan irtengo dira, eta hasten direnetik bi hilabete ingururen buruan, gutxi gora-behera, amaituta egotea espero dira.**

**.-“Erabilera eta segurtasuna bermatzea izango dira Udalaren helburuak”.- adierazi du Xabier Fondon, Zerbitzuetako zinegotziak.**

**Andoainen, 23-08-28.-** Hainbat hilabetez itxita egon ostean, laster hasiko dira Otieta tunelaren segurtasuna bermatzeko lanak. Horretaz arduratu den enpresak aurkeztu du azken proiektua, eta Zerbitzuetako lansailak orain dagokion lizitazio prozesua gauzatuko du; 180.000 euroko (179.337,90) kostearekin irtengo dira lizitaziora konponketa lanak, eta, gauzak ondo bidean, bi hilabete ingururen buruan lanak esleituta egotea espero da. Hortik aurrera hasiko dira lanak, hauek ere, ez badago aurkakorik, bi hilabeteren iraupena izango dutenak.

Gogoratuko dugu badirela hainbat hilabete Otieta tunela itxita dagoela; zehazki, 2022ko ekainean itxi zen lehenengoz lur-jausi bat tarteko. Lehen urrats batean tunelaren parte bat erreparatu zen, baina arrakala berriak aurkituta, segurtasuna bermatze aldera, tunela itxita mantentzea erabaki zen aurreko agintaldian. Orain aurkeztu den proiektuak tunel osoaren segurtasuna bermatzeko aktuzio ezberdinak egitea aurreikusten dira, tartean, ur filtrazioen higadurak saihesteko zigilatzeak, egituraren indartzea...

Udal gobernua jakitun da Otietako tunelaren itxierak hainbat eragozpen ekarri dituela herritarrentzat, trantsito handiko hilabeteak izan ohi baitira udarakoak; baina, halaber, ezinbesteko baldintza da herritarren ongizatea eta segurtasuna bermatzea. “Erabilera eta segurtasuna bermatzea izango dira Udalaren helburuak”.- adierazi du Xabier Fondon, Zerbitzuetako zinegotziak, tunela itxita mentatzearekin sortu diren eragozpenengatik barkamena eskatzearekin batera.